

MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure merkatua urritasun fisiko eta mentala duten pertsonen zuzenduta egongo da, eta pertsona hauei egunerokoan beraien "oufit"-ak egiten laguntzean oinarrituko gara. Euskadiko ehuneko kantitate txiki bat diren arren, kontuan hartu behar dira, gu bezala pertsonak direlako. Hartzailearekin edukiko dugun harremana neurritik diseinatuta egongo da, hau da, harreman pertsonala mantenduko dugu bezero guztiekin. Kontuan izango dugu nola gustatzen zaien janztea, etxean duten arropa, etab.



Hauek dira kontuan hartuko ditugun ezaugarri ezberdinak: ezaugarri demografikoak, ezaugarri geografikoak, ezaugarri psikografikoak eta jokabidezko ezaugarriak.

Ezaugarri geografiko aldetik kontuan hartuko duguna:

Eguraldiaren berri ere ematen dugu gure aplikazioan, beraz, bezero bakoitza bizi den tokiko informazioa emango dugu. Hori dela eta, aplikazioa erabiltzen dutenek ez dute beste inon begiratu beharko, baliabide guztiak emango baidizkiegu.

Ezaugarri demografiko aldetik kontuan hartuko duguna:

- Adina
- Sexua
- Bizilekua
- Faktore sozioekonomikoak
- Okupazioa
- Familia-egoera
- Diru-sarrerak

Ezaugarri psikografiko eta jokabide aldetik kontuan hartuko duguna:

- Nortasuna
- Balioak
- Jarduerak
- Denbora-pasak
- Lehentasunak
- Bizimodua
- Ezaugarri psikologikoak
- Sinesmenak
- Motibazioak

Zuzenduko garen merkatu mota, merkatu nitxoa da. Merkatu-nitxoa edo merkatu-hobia merkatu segmentu batean kontsumitzaile dagoen talde txikia da, oso behar bereziak dituen, maiz modu egokian asetu gabeak, eta beraz negozio-aukera izan daitekeena, bereziki *diferentziazio-estrategia* garatuz. Horretarako ordea, baldintza batzuk bete behar dira: nitxoaren tamaina nahikoa izan behar da errentagarria izateko, operazio berezituak behar ditu, ekoizpenean, marketinean nahiz banakuntzan, eta bezeroak prest egon behar dira gehigarri bat ordaintzeko.

Merkatu nitxoko hainbat ezaugarri:

- Sektore publikoa eta pribatua batera egotea.
- Askatasun pertsonala
- Jabetza pribatua baimentzen da
- Plangintza ekonomikoa
- Prezioen eta prezio kontrolatuaren mekanismoa
- Irabazi-asmoa eta gizarte-ongizatea
- Desberdintasun ekonomikoak monitorizatzea, minimizatzeko

Laburbilduz, gure merkatua urritasuna duten pertsonen zuzenduta egongo da. Bide honetatik, harreman pertsonalak mantenduko ditugu, merkatu nitxo zehatzek behar dituzten berezitasunak sakonduz. Bezeroak ahalik eta gertuko sentiarazteko, erabiliko diren ezaugarriak, demografikoak, geografikoak eta alderdi psikografikoak izango dira.